

ENPRESA IRUZURRAK. WorldCom Amerikako Estatu Batuetako (AEB) telekomunikazio konpainiaren kontabilitate akatsak guztira 7.200 dolarrekoak direla erakutsi du auditoria berri batek.

WorldComen kontabilitate iruzurra 7.200 milioi dolarrekoa da, uste zen halako bi

Bigarren auditoriak 3.300 milioi dolarreko beste kontabilitate akats bat antzeman du

KORPORAZIOEN ESKANDALUAK

WorldComen gain, zortzi hilabetean finantza eskandalu ugari azaleratu dira korporazioen artean. Hauexek dira ezagunenak, baina ez bakarrik:

ENRON. AEBetako zazpigarren konpainiak iragan abenduaren 2an ordu arteko kiebrarik handiena jo zuen. Aitortu behar izan zuen milioika dolarreko galerak ezkutatu zituela.


GROBAL CROSSING. Telekomunikazio enpresa horren izarra urtarilaren 29an itzali zen, sektoreko ordainketa bolumen handiena etetea. Kontabilitatea apaindu zuen.

ANDERSEN. Enronen, Grobal Crossing eta WorldComen ikuskatzaile zen munduko bosgarren auditoria enpresa. Eskandaluek nazioarteko bezero eta bazkideen ihesa eragin zuten.

MERRYL LYNCH. Maiatzaren 21ean, 100 milioi dolarreko isuna ordaindu zuen, bertako adituek, inbertsio kaltegarriak zirela jakinda ere, aholkatzen zituztelako.

ADELPHIA. Kable bidezko telebisten seigarren konpainiatik dimisioa aurkeztu zuten John Rigas sortzaileak eta haren hiru semeek, sozietateko 3.100 milioi dolar beste negozioetarako erabili zituztela jakin ostean. Ekainean ordainketak eten zituen.

XEROX. Munduko fotokopiagailu ekoizle handienak 6.000 milioi dolarreko galerak ezkutatu zituen kontabilitatetik.



SUZANNE PLUNKETT / AP

Iragan uztailen iragarri zuen telekomunikazio enpresak historiako kiebrarik handienetakoa izan dena.

Agentziak | WASHINGTON

WorldCom-ek kiebra jo zuen iragan hilabetean, AEBetako historia ekonomikoan inoiz izandako eskandalurik handienaren protagonista bilakatu ondoren. Enpresa horrek 3.850 milioi dolarreko gastuak inbertsio gisa erregistratu zituen kontabilitate liburuetan, bere emaitza ekonomikoak itxuratzeko. Kopuru horri iragan astean egindako beste auditoria batek azaleratutako beste 3.300 milioi dolar gehitu behar zaizkio orain.

Iruzurraren ondorioz, telekomunikazio enpresak berriz egin behar ditu 2000ko, 2001eko eta 2002ko lehen hiruhileko kontuak. Atzo egindako adierazpen publikoan, enpresak iragarri zuen barne ikerketan aurrera jarraituko duela, eta «kontabilitate akats gehiago» aurki zitezkeela aitortu zuen.

WorldComen AEBetako In-

IKERKETA

Enpresak esan du barne ikerketan aurrera jarraituko duela eta akats gehiago azal litezkeela

ternet trafikoaren erdia bideratzen du, eta distantzia luzeko telefono deien bigarren maneatazaila nagusia da.

Enpresak onartu zuen atzo 50.600 milioi dolarreko aktiboen amortizazioa egingo duela, baita ondare, lantegi nahiz ekipamenduen balioztapena ere.

AEBetako balio merkatuko batzordea (SEC), bertako Legebiltzarreko beste batzorde batzuk eta Justizia Saila ikerketak egiten ari dira enpresaren diru kontuen gainean, galerak ezkutatzea leporatzen diotela.

Iruzur horregatik konpainiako bi finantza zuzendari ohi

atxilotu zituzten iragan astean: bata Scott Sullivan izenekoa, konpainiak ekainean kaleratua, eta bestea David Myers. Haiei egotzi diete 4.000 milioi dolarreko gastuak ezkutatzea eta inbertsiogileei gezurra esatea, enpresak irautea helburu zutela.

WorldComen porrot ekonomikoa AEBetako historiako larrien eta sonatuena izan da, diru kopuruen aldetik begiratuta. Hala ere, enpresa horren iruzurra ez da bakarria izan lurralde hartan. Aitzitik, iaz hasitako kontabilitate iruzur kate baten azken katebegia baino ez da.

Katea Enron argindar multinazionalaren porrotarekin hasi zen, eta horri beste batzuek jarraitu zioten, batik bat telekomunikazio alorrekoak, hala nola Grobal Crossing eta WorldComena berarena.

Eskandaluok eragin bortitza izan dute nazioarteko burtsetan aurreko hilabeteetan, eta oraindik ere ageri dira astinaldiak.

LGS

Gutxieneko soldata sei hilabetetik behin egokitze eskatu du CCOOk

Europa Press | IRUÑEA

Lanbide arteko gutxieneko soldata sei hilabetetik behin egokitu beharko luke Madrilgo gobernua, CCOO sindikatuaren arabera. Hala adierazi du Javier Barinaga sindikatuko Politika Instituzionalaren arduradun nafarrak.

Espainiako gutxieneko soldataren inguruan CCOOk eta UGTk egindako ikerketa baten ondorioak aurkeztu zituen atzo Barinagak. Haren hitzetan, «gutxieneko soldatak funtsezko eginkizuna betetzen du, egoera sozio-ekonomiko zailean bizi diren langileei errenta bat bermatzen dielako».

Hala ere, Espainiako gutxieneko soldataren eros-ahalmena galduz joan da urterik urte; azken lau urteetan, %4,7 galdu du. Gainera, batez beste soldata baino gutxiago handitzen ari da: sei puntu gutxiago. «Horrek areagotu egiten du diru sarriaren gutxiengoa duten langileen bazterketa soziala», azaldu du sindikatuak.

Europako apalenetakoa

Egun, gutxieneko soldata batez beste soldataren %40koa da Espainian, Europako Gizarte Agiriak gomendatzen duen %60ren azpitik. Gainera, Europako Batasuneko gutxieneko soldatarik apalenetakoa da; Greziakoa eta Portugalgoa soilik dira apalagoak.

Hala, Espainiako gutxieneko soldata Greziakoa baino 43 euro gehiagokoa da, eta Portugalgoa baino 110 euro gehiagokoa, baina 493 euro apalagoa da Irlandakoarekin konparatuta. Lurralde horrek soldata apaletan laugarrena du Europan.

Madrilgo gobernua urtero egokitzen du gutxieneko soldata, bizimoduaren garestitzeari egokitze, aurreikusitako inflazioa erabiliz. Inflazioa aurreikusi baino handiagoa izaten denez, soldatak eros-ahalmena galdu ohi du. Hori gertatzen denean, Langileen Estatutuak sei hilabetetik behin egokitzea jasotzen duela gogoratu du CCOOk.